 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

#### IV. TITULUA – LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ORDENANTZA ESPEZIFIKOAK

##### 1.- KAPITULUA.- LURZORU HIRITAR EZINEKO EREMUEK ERREGULAZIOA

###### 1. Atala: Eremuen erregulazioa

###### 1. Azpiatala: 1. Eremua: Nekazaritza, abeltzaintza eta basoa babesteko lurzoru hiritar ezina


###### **144. art.- 1.1. Eremua: Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zona eta Landazabala**

Eremu hau herri gunearen inguruan kokatzen diren lurrek eta baserri guneei osatzen dute.


Eremu honetan helburuak, alde batetik, lurzoru honen nekazaritzarako gaitasuna mantentzea, eta bestetik, herri gunearen eta baserri guneen paisaia eta eguzkitzapen baldintza egokiak bermatzea dira.

Baserriak Lizartzako paisaiaren sortzaile dira eta beren jardueraren iraupena ziurtatu behar da.

Lizartzako herri gunea malda handiko magalez inguratua dago, ibar estu baten beheko aldean. Alde batetik herri gunearen eguzkitzapena oso baldintzaturik dago eta bestetik, malda hauen presentziak indar handia du herri gunearen paisaian. Eremu honetan paisaiaren babesa eta herri gunearen eguzkitzapena bermatzeko bertako hostozabalak ez diren espezie landaketa masiboak debekatu nahi dira.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Onartutako erabilerak:
- Nekazaritza intentsiboa eta estentsiboa
- Abeltzaintza estentsiboa eta erdi intentsiboa
- Basogintza, soilik bertako hostozabalen landaketak.
- Ingurumen hobekuntza
- Naturaren kontserbazioa
- Jasan daitezkeen erabilerak:
- Ustiapeneko produktuak merkaturatzeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza erabilera.
- Nekazaritza ustiapen bati loturik egon gabe Arau hauetan kontsolidatzen diren baserri eta etxebizitza eraikinetan etxebizitza erabilera.
- Erabilgarritasun publikoa edo interes soziala izanik, derrigorrez lurzoru hiritar ezinean kokatu behar duten erabilerak
- aisia estentsiboa, nahiz intentsiboa
- Ostalaritza zerbitzuak, beti ere lehendik dauden baserrietan ematen badira.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


- Ehiza eta arrantza, beti ere jarduera hauek arautzen dituen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan.
- Airetiko zein lurpeko lineak
- Arrain-hazkuntza baldintza mugatuetan
- Debekatutako erabilerak:
- Gainerako erabilerak

#### **145. art.- 1.2.Eremua: Basoa**


Eremu hau basogintzarako egokiak diren lurrek osatzen dute.

Eremu honetan helburua basoaren aniztasuna eta iraupena ziurtatzea da, eremua mugatuz eta ordenatuz. Baso ustiapena lurraldearen paisaia eta ekologia hobekuntzarekin uztartu behar da, ustiapen jasangarriak eta arrisku naturalen prebentzioa egingo dutenak bideratuz.

- Onartutako erabilerak:
- Basogintza
- Ingurumen hobekuntza
- Naturaren kontserbazioa

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Jasan daitezkeen erabilerak:
- Nekazaritza estentsiboa
- Abeltzaintza estentsiboa
- Erabilgarritasun publikoa edo interes soziala izanik, derrigorrez lurzoru hiritar ezinean kokatu behar duten erabilerak
- aisia estentsiboa, nahiz intentsiboa
- Ehiza eta arrantza, beti ere jarduera hauek arautzen dituen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan.
- Airetiko zein lurpeko lineak
- Dorreak, antenak eta irrati eta telebistarako eta satellite bidezko komunikaziorako emisore eta hargailuak
- Nekazaritza ustiapen bati loturik egon gabe Arau hauetan kontsolidatzen diren baserri eta etxebizitza eraikinetan etxebizitza erabilera.
- Debekatutako erabilerak:
- Gainerako erabilerak

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


2. Azpiatala: **2. Eremua: Babes Bereziko Lurzoru Hiritar Ezina**

**146. art.- 2.1.Eremua: Interes Naturalistikoa duten Lurrak Babesteko Lurzoru Hiritar Ezina**

Interes naturalistiko berezia duten eremuak mugatu dira: Alde batetik mendi gailurrak: Narbaitzu, Otsabio, Austokieta, Antxusieta, Lapar, Leizetxiki, Pagaditxiki, Uniola, Zitzaola, Leizagaiztoeta; eta bestetik berezko basoa mantentzen duten natur guneak: artadiak eta pagadiak.

Eremu honetan helburua berezko baldintza naturalen mantenua da.

- Onartutako erabilerak:
- Naturaren kontserbazioa
- Jasan daitezkeen erabilerak:
- Aisia estentsiboa
- Abeltzaintza estentsiboa babestutako elementuekin bateragarri denean.
- Basogintza, beti ere, bertako hostozabalena soilik.
- Dorreak, antenak eta irrati eta telebistarako eta satellite bidezko komunikaziorako emisore eta hargailuak, baldintza mugatuetan.
- Airetiko zein Lurpeko lineak

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


- Ehiza eta arrantza, beti ere jarduera hauek arautzen dituen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan.
- Nekazaritza ustiapen bati loturik egon gabe Arau hauetan kontsolidatzen diren baserri eta etxebizitza eraikinetan etxebizitza erabilera.
- *Debekatutako erabilerak:*
  - Gainerako eraikuntza eta azpiegiturak
  - Gainerako erabilera guztiak
  - Debekatuta dago baimenik gabe zuhaitzak botatzea eta jarduera suntsizaile eta higatzaileak egitea.

Eremu honetan kokatzen den Mikeleteen Etxea Arau hauetan espresuki kontsolidaturik geratzen da gaur egun dituen ezaugarrietan (eraikuntzaren okupazioa, profila, etab). Bertan, familiabakarreko etxebizitza erabilera, ostalaritza erabilera edo eta erabilgarritasun publiko edo interes sozialerako bestelako edozein erabilera baimentzen da.

#### **147. art.- 2.2. Eremua: Ubideak Babesteko Lurzoru Hiritar Ezina**

Eremu honetan sartzan dira Araxes, Basabe eta orokorrean Lizartzako ubide guztiak. Arau Subsidiarioetako araudiaz gain Ubideei buruz Lurraldearen Arloko Planak dioena errespetatu beharko da.

Araxes eta Basabe erreken ubideen ertzetatik albo banatara 100 m-tan dauden lurrak, Maibera erreken ertzetatik albo banatara 15 m-tan daudenak eta Lizartzako

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

gainerako ubideetako mugetatik albo banatara 5 m-tan dauden lurak sartzen dira kategoria honetan.

Herri gunetik hasi eta Nafarroako mugaraino Araxes errekek lehentasunezko interes naturalistikoa dauka. Eremu honetan helburua ubide hauen balio naturalistikoak eta beren korridore ekologiko izaera mantentzea da, erriberako landaretza mantenduz.

Garrantzia Komunitarioko Leku izendatzearen ondorioz Araxes errekarako kudeaketa plana onartzen bada, Arau Subsidiario honetan ezarritako araudiari gainjarriko zaio plan hori.


Bai Araxes errekan bai Basabe errekan ongi kontserbatutako landaretza duten zatiak daude eta hainbat zatik higagarritasun edo irristadura arriskua edo akuiferoen urrakortasun arriskua dute.

- Onartutako erabilerak:

- Naturaren kontserbazioa
- Ingurumen hobekuntza

- Jasan daitezkeen erabilerak:

- Aisia estentsiboa
- Ehiza eta arrantza, beti ere jarduera hauek arautzen dituen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan.
- Nekazaritza estentsiboa eta intentsiboa (\*)


 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Abeltzaintza estentsiboa babestutako elementuekin bateragarri denean. (\*)
- Basogintza (\*), bertako hostozabalen basoa soilik.
- Garraiobideak (\*)
- Airetiko zein Lurrazpiko lineak (\*)
- Nekazaritza ustiapenari lotutako etxebizitza erabilera. (\*)
- Arrain-hazkuntza baldintza mugatuetan (\*)
- Nekazaritza ustiapen bati loturik egon gabe Arau hauetan kontsolidatzen diren baserri eta etxebizitza eraikinetan etxebizitza erabilera.
- Debekatutako erabilerak:
- Gainerako erabilera guztiak


**(\*) Gainjarritako baldintzak:**

- *Gaur egun ubidearen ertzean dagoen landaretzaren mugatik 10 m-ko tartea errespetatuko da edozein jarduerarako.*
- *Erriberako zuhaitz eta zuhaixken mozketarako arloko araudi berezian ezarritako erregimena errespetatu beharko da.*
- *0,5Km2 baino gehiagoko ibarretako urak jasotzen dituzten ubideen estaltzea debekaturik dago*



 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- *Herrien arteko errepideak 500 urteko itzulera epea duten uholdeek ez eragiteko moduan proiektuko dira.*
- *Ubide publikoaren mugako lerrotik gutxienez 30 m-ko tartea errespetatuko da orokorrean Araxes eta Basabe erreketan lurzoru naturalaren eraldaketa eragiten duen edozein interbentziotarako (eraikuntzak, instalazioak, lur mugimenduak, etab) nekazaritza eta basogintzarako lanak, obra publikoak eta azpiegitura instalazioak izan ezik edo ondare kulturalaren babeserako ekintzak izan ezik behar bezala justifikatzen direnean.*
- *Lurpeko lineak ipintzeko 15 m-ko tartea utziko da ubidearen ertzera (kolektoreak eta lehendik dauden bideen azpitik doazen instalazioak salbu)*
- *Herriko Ur zikinen arazketa zentralak ipintzeko ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa bat egin beharko da.*
- *Araxes errekan herrigunetik Nafarroako mugaraino:*
  - Eremu Hezeen Lurraldeko Arloko Planaren bitartez erregulatuko da.
  - Plan hau ez dagoen bitartean 50 m-ko tartea errespetatuko da ubidearen ertzetik edozein jarduerarako, obra eta azpiegitura publikoak edo ondare kulturala babesteko jarduerak salbu, behar bezala justifikaturik.
  - Eremu honetan orokorrean debekatzen diren jardueraz gain arrain-hazkuntzak ere debekaturik daude.
- *Higagarritasun arriskua edo akuiferoen urrakortasun altua gainjarrita duten eremuetan:*

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


- Landaretza mantenduko da
- Bertako zuhaitzen landaketa sustatuko da
- Lur mugimentuak eta isurketak eragotziko dira.

Eremu honetan kokatzen den Mikeleteen Etxea Arau hauetan espresuki kontsolidaturik geratzen da gaur egun dituen ezaugarrietan (eraikuntzaren okupazioa, profila, etab). Bertan, familiabakarreko etxebizitza erabilera, ostalaritza erabilera edo eta erabilgarritasun publiko edo interes sozialerako bestelako edozein erabilera baimentzen da.


**148. art.- 2.3.Eremua: Interes Kulturala duten Elementuak Babesteko Lurzoru Hiritar Ezina**

Eremu honetan Otsabio - Zarateko Estazio Megalitikoa eta Urkitako Estazio Megalitikoa babesteko lurrak sartzen dira. Bertan hiru eremu desberdinduko dira: lehen eremua Monumentu Megalitikoak, berak osatua; bigarren eremua Monumentu Megalitikoaren hurbileneko inguruneak osatua, bertatik 10 m-ko distantziara kokatzen den lerroaz mugaturik; hirugarren eremua gainerako lurrek osatzen dute.


- *Lehen eremuan onartutako erabilerak:*
- aztarnategia ikertzeko eta zabaltzeko zientzia eta kultura jarduerak. Lan horiek egiteko egitasmoa Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendu beharko du.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Lehen eremuan jasan daitezkeen erabilerak:
  - Tokia nahiz bertako ondarea ezagutzera bideratutako kultur jarduerak. Jarduera hauek gauzatu ahal izateko Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren baimena beharko da.
  - Aisia estentsiboa
- Lehen eremuan debekatutako erabilerak:
  - Gainerako erabilerak debekatzen dira
- Bigarren eremuan onartutako erabilerak:
  - Aztarnategia dagokion natur gunean integratzera bideratutakoak, baldin eta integrazio horren bitartez, artatu beharreko kultur ondasunean funtsezko aldaketarik eragiten ez bada
  - Naturaren kontserbazioa
  - Ingurumen hobekuntza
- Bigarren eremuan jasan daitezkeen erabilerak:
  - Abeltzaintza estentsiboa baldin eta lurra iraultzen ez bada edota lurzoruko arkeologia-hondakinetan aldaketarik eragiten ez bada.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Gaur egun dauden baso ustiaketak mantentzea onartzen da, baina baso azalera handitzea edota eremu horretan birlandatzea debekatzen da. Zuhaitzak sustraia erauzi gabe ebakiko dira, hau da, motzondoak jatorrizko eran utzi beharko dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren baimena beharko da.
- Eremua babesteko, nola kultura ikertzeko edo zabaltzeko nahitaezkoztat jotzen diren eraikuntzak eta instalazioak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren baimena beharrezkoa izango da.
- Aisia estentsiboa
- Ehiza eta arrantza, beti ere jarduera hauek arautzen dituen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan.
- *Bigarren eremuan debekatutako erabilerak:*
  - Abeltzaintzari lotutako txabolak
  - Zuhaitz landaketak
  - Gainerako erabilerak
- *Hirugarren eremuan onartutako erabilerak:*
  - Naturaren kontserbazioa
  - Ingurumen hobekuntza


 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- *Hirugarren eremuan jasan daitezkeen erabilerak:*
- Basogintza. Pistarik egin behar bada lehenik prospekzioak egin beharko dira. Lur mugimenduak debekaturik daude
- Ehiza eta arrantza, beti ere jarduera hauek arautzen dituen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan.
- Aisia estentsiboa
- Abeltzaintza estentsiboa
- *Hirugarren eremuan debekatutako erabilerak:*
- Gainerako erabilerak


#### **149. art.- 2.4.Goltzur Zelaiko Paisaia Babesteko Lurzoru Hiritar Ezina**

Eremu hau udalerrriaren ipar mendebaldean kokatzen da, Oresa eta Gazteluko udalerrien mugan eta bere paisaia paregabearen balioa dela eta babesten da. 1992an Goltzur Zelaiko Plan Berezia idazteko agindua eman zen. Plan hau tramitatu ez bazen ere eremuari buruzko informazio ugari jasotzen du.

Eremu honek 8,64 Ha inguruko azalera du eta 350 m-tara kokatzen den gainalde lauko muino bat da. Bertan nekazaritza eta abeltzaintza dira jarduera nagusiak. Bertan kokatzen dira herriko garoleku nagusiak

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Onartutako erabilerak:
- Naturaren kontserbazioa
- Ingurumen hobekuntza
- abeltzaintza estentsiboa
- nekazaritza estentsiboa
- Jasan daitezkeen erabilerak:
- Ehiza eta arrantza, beti ere jarduera hauek arautzen dituen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan.
- Aisia estentsiboa
- Nekazaritza ustiapen bati loturik egon gabe Arau hauetan kontsolidatzen diren baserri eta etxebizitza eraikinetan etxebizitza erabilera.
- Debekatutako erabilerak:
- Etxebizitza eraikin berriak
- Ostalaritza
- Gainerako erabilerak

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

### 3. Azpiatala: **3. Eremua: Ingurumen Hobekuntzarako Lurzoru Hiritar Ezina**

#### **150. art.- 3. Ingurumen Hobekuntzarako Lurzoru Hiritar Ezina**

Eremu hau harrobiaren inguruan mugatu da. Bertan helburua ingurumen baldintza egokiak berreskuratzea da. Honetarako berreskuratze proiektu bat idatzi eta onartu beharko da.


#### 2. Atala: Gainjarritako baldintzak

#### **151. art.- Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten lurzoruak**

Lur azpiko urak erraz poluitu daitezkeen eremu gisa, Eusko Jaularitzak hala sailkatutakoak hartuko dira.

Eremu hauetan debekatuta dago toxikotasunengatik edo konposaketa kimiko edo bakteriologiakoarengatik lur azpiko urak poluitzeko arrisku nabarmena ekar dezaketen isurpenak (hondakinak isurtzea, gasolina-zerbitzuguneak eta antzekoak) sortzen dituzten jarduerak jartzea.

Halaber, gune horietan, lur azpiko urak poluitu ditzaketen hondakinak sortzeko arriskua duten erabilerak (nekazaritzako edo abeltzaintzako instalazioak edo etxebizitzaren saneamenduko putzu beltzak) baimenduko dira, baldin eta beharrezko babes neurriak hartzen badira eta, lizentzia eskatzeko dokumentazioarekin batera, arriskuaren baitan proposatutako neurriak eraginkorrak direla frogatzen duen azterketa hidrologiko dat aurkezten bada.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

1968ko uztailaren 15eko Emakida Aginduaren bidez Insalusko ur mineralaren (Erabilgarritasun Publikokoa izendatua) Ustiapen Emakidaren titularra den AGUA DE INSALUS S.A.-ri emandako Babes Perimetroari dagokionez, dagokion lurzoru kategoriaren eta "Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten lurzoruak" gainjarritako baldintzaren arabeko erregimen aplikagarriaz gain, uztailaren 21eko Minen 22/1973 Legeak dioenari eta babes perimetroan erabilerak erregulatzeko aplikagarri den gainerako araudiak esan dezakeenari so egin beharko zaio.


### **152. art.- Higagarritasun handiko lurzoruak**

Eremu honetan lurzoru finkatzeko egokiak diren zuhaitzen landaketa bultzatuko da. Honela, ziklo luzeko espezieak landatuko dira (haritza eta pagoa) ziklo motzekoekiko (pinua) lehentasuna izango dutelarik.

Zuhaitzak ateratzeko baimena baldintza hauetan emango da:

- Aldi bakarrean botatako partzelak gehienez 5 Ha izango ditu.
- Beharrezko diren pisten proiektua aurkeztuko da. Udalak mugak ezarri ahal izango dizkio pistak zabaltzeari.
- Zuhaitzak bota eta jarraian datorren lehenengo denboraldian egin beharko da landaketa berria.
- Ezingo da lur mugimendurik egin.



 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

## 2.- KAPITULUA.- ERABILEREN DEFINIZIOAK

### **153. art.- Erabileren definizioak**

**1.- Nekazaritza estentsiboa:** Ekoizpena aurrera ateratzearren, sailak eta lurrak prestatzeko egiten diren jarduerak, mantentze lanak, ureztatzeak barne eta uztak biltzeko lana barne. Nekazaritzako tresnak eta lanabesak eta nekazaritzako produktuak gordetzeko eta kontserbatzeko eraikinak bertan sartzen dira.


**2.- Nekazaritza intentsiboa:** Ekoizpena aurrera ateratzearren, sailak eta lurrak prestatzeko egiten diren jarduerak, mantentze lanak, ureztatzeak barne eta uztak biltzeko lana barne. Nekazaritzako tresnak eta lanabesak eta nekazaritzako produktuak gordetzeko eta kontserbatzeko eraikinak bertan sartzen dira. Negutegiak eta tunelak ere bertan sartzen dira.

**3.- Ustiapeneko produktuen lehen transformazioa:** Ustiapeneko produktuak merkaturatzeko behar den lehen prestaketa (garbitzea, lotetan edo kaxatan sartzea, etiketatzea eta abar) eta lehen transformazioa (kontserbak, dultzeak eta abar...) oinarritzko osagaia %100 ustiaketa bertatik datorrenean.

**4.- Abeltzaintza estentsiboa:** Larreak lortzeko eta abeltzaintzarako sailak eta lurrak prestatzeko egiten diren lanak, itxiturak barne eta abereak babesteko txabolak barne.

**5.- Abeltzaintza erdiestentsiboa eta intentsiboa:** Abeltzaintza estentsiboaz gain, ustiapena aurrera ateratzeko ukuilu baten beharra duen abeltzaintza.

**6.- Basogintza:** Baso produkzioarekin eta beronen antolaketarekin loturiko lanak: baso mozketak, garbiketak, birlandaketak, zuhaitz banaketak, kimaketak, desbrozeak, pista prestaketak, itxiturak eta baso ustiapenari atxikitako eraikuntzak.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

**7.- Arrain-hazkuntza:** Arrain produkzio, hazkuntza eta ugalketara emandako instalazioak eta produkzio lanak, beti ere, landa eremu honi ezinbesteko lotura justifikatzen denean.


**8.- Aisia estentsiboa:** Inguruaren eraldaketa sortu gabe egiten den aisia, turismo eta kultur jardura: oinezko txangoak, behategiak...Azpiegitura eta egokitze lan minimoak eragiten dituzten aisia jarduerak barne. Jardura hauek, beti ere, paisaian guztiz integratuko dira. Erabilera honek ez du ez eraikuntza ez instalazio berririk sortuko. Erabilera honen erregulazioa, gehienbat apirilaren 16ko 79/1996 Dekretu bidez egingo da, edo momentuan indarrean egon daitekeen beste araudien bidez.

**9.- Aisia intentsiboa:** ingurunean eraldaketa eragiten duten turismoa, gozamenerako aisia eta kultur jarduerak: aparkamendu txikiak, haur jolasak, mahaiak, barbakoak, iturriak, komunak, zabor biltegiak eta abar izan ditzaketen aisialdi eremuak. Ez dira erabilpen honetan sartzen eraikuntzak eskatzen dituzten erabilpenak: kanpinak, golf-ak, etab.

**10.- Ehiza eta arrantza:** jardura hauek udalaz gaindiko araudiaren bidez erregulatuko dira. Ez dira erabilera honetan sartzen jardura hauei lotutako eraikuntzak ez eta plater tiratzea edo antzerakoak.

**11.- Ostalaritza:** Nekazal turismoa, jatetxeak, sagardotegiak, landetxeak.

**12.-Ingurumenaren hobekuntza:** zona hauek bere jatorrizko egoerara edo oreka egoera eboluzionatuagoetara eramateko gai diren tratamenduak. Hobekuntza hau hainbat modutan gauza daiteke, kasuan kasuko unitatearen gora behera partikularren arabera (inausketa selektiboak, artzaintza kontrolatua, baso garbiketa, soilketa selektiboa, izurrite eta gaixotasunen tratamendu, etab.)

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Baso birlandaketa ere hobekuntza bereizi bat izan daiteke, batez ere, paisaia edo ekologi irizpideetan oinarriturik aukeratutako zuhaitz motak aldatzea edo ereitea.

**13.- Naturaren kontserbazioa:** Egungo ezaugarriak eta egoera bere horretan uztea, gizakiak bertan esku hartu gabe, edo kasurik naturalizatuenean zientzi edo kultur izaerako eskuhartzeak soilik burutuz, edo egungo erabilerarekin jarraitzea, gizakiak aktiboki parte hartuz garapen sostengarriko dinamika batean gainerako kasuetan.

**14.- Airetiko lineak:** Energia elektrikoa garraiatu edo banatzeko sareak eta beste helbururen bat duten bestelako aireko lineak barne hartzen ditu, hauen euskarriekin eta sarearen osagarriak diren instalazioekin batera.


**15.- Lurpeko lineak:** Gasa, petrolioia eta produktu deribatuak eta ura garraiatu edo banatzeko sareak, saneamendukoak eta telekomunikazioenak eta lurpeko bestelako azpiegitura-sareak barne hartzen ditu, baita hauen instalazio osagarriak ere.

### 3.- KAPITULUA.- LURZORU HIRITAR EZINEKO ERAIKINEN BALDINTZAK

#### **154. art.- Obra publikoekin lotutako erabilerak eta erabilgarritasun publikoa edo interes soziala duten erabilerak:**

Atal honetan sartzen diren eraikuntzak:

Komunikazio sistemak ustiatzeko eta horien mantentze lanetarako instalazio eta eraikuntza osagarriak, zerbitzuguneak barne. Zerbitzuguneetako azpiegiturak: ur hornikuntzak, ur zikinen arazketa, gas hornikuntza, argi indarra, telefono sarea, irrati eta telebistakoak eta erabilgarritasun publikoa edo interes soziala izan dezakeen edozein eraikin, instalazio edo erabilera.


 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Eraikuntza baldintzak:


- Partzela minimorik ez da ezartzen, baina Udalaren esku geratzen da beharrezkoak izan daitezkeen baldintzak ezartzea kasu bakoitzaren arabera.
- Partzelaren mugetara gutxienez 10 m-ko tartea utzi beharko da.
- Eraikinak nahiz azpiegiturak ingurunean ahalik eta egokien integratu beharko dira. Udalak eskumena izango du beharrezko diren baldintzak ezartzeko.
- Beharrezko azalera eta eraikuntza baldintzak erabileraren arabera justifikatu beharko dira.
- Eraikuntza kokatzen deneko lursailera auto bidez iristea bermatuko da. Hala behar balitz bideak eta gertueneko eremua egokituz.
- Ahal den neurrian eraikitako 100 m<sup>2</sup> bakoitzeko aparkaleku bat egokituko da.

### **155. art.- Nekazaritzako lanabesak eta gaiak gordetzeko txabolak**

- Soilik nekazaritzarako lanabesak eta gaiak gordetzeko erabiliko dira eta debekaturik egongo da aisialdiko nahiz bizileku erabilera ematea. Ezin izango dute argindarrrik nahiz saneamendu hornikuntzarik eduki.
- Landutako baratzak 500 m<sup>2</sup>-ko azalera gainditu beharko du txabola eraiki ahal izateko.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


- Plantan gehienez 12 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du. Ataria badu, azalera honen barnean egon beharko du. Barne zatiketarik gabe izango dira.
- Gehienez 2,2 m-ko altuera izango du teilatu hegal horizontaleraino.
- Estalkia bi isuritakoa izango da eta gehienez %35-eko malda izango du. Isuri bakarreko estalkia egin ahal izango da, beti ere paisaiarekiko erasana gutxitzeko bada.
- Orokorrean partzelaren mugetara 5 m-ko tarte utzi beharko da. Bide sarera 10 m-ko tarte gorde beharko da gutxienez. (Udalaz gaindiko araudiak distantzia handiagoak eskatzen ez dituzten kasuetan).
  - Errepideetatik: Foru Araudiaren arabera aldendu beharko da.
  - Ur ibilguetatik: Erkidegoko Arauaren arabera aldendu beharko da.
- Ustiapen bereko beste eraikinetatik gutxienez 150 m-ko distantzia dagoenean baimendu ahal izango dira soilik, edo ustiapen bereko beste eraikinetan lanabesak gordetzeko tokirik ez dagoela justifikatzen denean.
- Eraikuntza materialak ondorengoak izango dira:
  - Estalkia teila zeramikoaz egingo da
  - Arotzeria egurrezkoa edo itxura berekoa izango da
  - Hormak harrizkoak edo zarpiatu eta margotutakoak izango dira.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


- Behin behineko izaera izango dute. Baimena emateko 300 euroko bermea ezarriko da eta hau eraikina desagertzen denean berreskuratu ahal izango da. Baimena lau urtero berritu beharko da.
- Gaur egun dauden txabolak baldintza hauetara egokitu beharko dute urte beteko epean.
- Udalaren baimenaz gain Foru Aldundiaren baimena beharko da hauek eraiki ahal izateko.

#### **156. art.- Animalien babeserako txabolak**

- Soilik abereen babesleku gisa erabiliko dira eta debekaturik egongo da aisialdiko nahiz bizileku erabilera ematea. Ezin izango dute argindarrik izan.
- Ustiaketak Gipuzkoako ustialekuen erroldan izen emanda egon beharko du eta errolda honetako ziurtagirian babestu nahi den animalien zerrenda azalduko da.
- Plantan gehienez 40 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du. Ataria badu, azalera honen barnean egon beharko du. Barne zatiketarik ez du izango.
- Solairu bakarra izango du eta gehienez 2,2 m-ko altuera izango du teilatu hegal horizontaleraino.
- Estalkia bi isuritakoa izango da eta gehienez %35-eko malda izango du. Isuri bakarreko estalkia egin ahal izango da, beti ere paisaiarekiko erasana gutxitzeko bada.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Orokorrean partzelaren mugetara 5 m-ko tarte utzi beharko da. Landa bideetara 10 m-ko tarte gorde beharko da gutxienez. (Udalaz gaindiko araudiak distantzia handiagoak eskatzen ez dituzten kasuetan).
- Errepideetatik: Foru Araudiaren arabera aldenduko da
- Ur ibilguetatik: Erkidegoko Arauaren arabera aldenduko da.
- Ustiapen berekoak ez diren beste etxebizitza eraikinetatik gutxienez 50 m-ko distantzia gordeko da.
- Norbere zakurrentzako zakurtegien kasuan, gainerako etxebizitza eraikinetatik 150 m-ko distantzia gordeko da eta herri gunetik 500 m-ko distantzia gordeko da.
- Ustiategian sortzen diren hondakinak biltegitatzeko eta deuseztatzeko sistemen proposamen xehea aurkeztuko da. Kontu berezia izango da ubideetatik gertu kokatzen direnetan eta akuiferoen urrakortasuna altua den eremuetan.
- Eraikuntza materialak ondorengoak izango dira:
  - Estalkia teila zeramikoaz egingo da
  - Hormak harrizkoak , egurrezkoak edo zarpiatu eta margotutakoak izango dira.
  - Fatxaden diseinua emango zaion erabileraren arabera izango da eta Udalak eskumena izango du desegokiak iruditzen zaizkion proposamenak baztertze.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


- Behin behineko izaera izango dute. Baimena emateko 300 euroko bermea ezarriko da eta hau eraikina desagertzen denean berreskuratu ahal izango da. Baimena lau urtero berritu beharko da.
- Gaur egun dauden txabolak baldintza hauetara egokitu beharko dute urte beteko epean.
- 141/2004 DEKRETUA, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustiatagietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen bete beharko da.
- Udalaren baimenaz gain Foru Aldundiaren baimena beharko da hauek eraiki ahal izateko.

### **157. art.- Ukui luak**


Abeltzaintza erdi estentsibo eta intentsiborako eraikinak dira.

- Soilik abereen gordeleku gisa erabiliko dira eta debekaturik egongo da aisialdiko nahiz bizileku erabilera ematea.
- Udalaren baimenaz gain Foru Aldundiaren baimena beharko da hauek eraiki ahal izateko.
- Gehienezko eraikigarritasuna 0,2 m<sup>3</sup>/m<sup>2</sup>-koa izango da eta partzela hartzaileak gutxienez, 5.000 m<sup>2</sup> izango ditu.
- Eraikinak plantan gehienez 500 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du. Ataria badu, azalera honen barnean egon beharko du.




 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Gehienezko luzera 40 m-koa izango da.
- Solairu bakarrekoa izango da eta gehienez 5 m-ko altuera izango du teilatu hegal horizontaleraino terrenoaren edozein tokitan neurtuta.
- Estalkia bi isuritakoa izango da eta gehienez %35-eko malda izango du. Isuri bakarreko estalkia egin ahal izango da, beti ere paisaiarekiko erasana gutxitzeko bada.
- Orokorrean ondorengo distantziak errespetatuko dira:
  - . Partzelaren mugara: 10 m
  - . Ustiapenekoa ez den edozein etxebizitzetara, 50 m
  - . Landabideen ertzetatik: 10 m
  - . Errepideetatik: Foru Araudiaren arabera
  - . Ur ibilguetatik: Erkidegoko Arauaren arabera.
  - . Hirigune eta gunen urbanizagarrien mugetatik:
    - Ardien, ahuntzen eta untxien granjetara edo ukuiuetara: 100 m
    - Behien, zaldien, hegaztien eta larrugintzako animalien granja edo ukuiuetara: 150 m
    - Txerritegietatik: 300m
    - Zakurtegitatik: 500 m
- Eraikuntza materialak ondorengoak izango dira:
  - Estalkia teila zeramikoak edo antzeko itxura ematen duen sistemaz egingo da.
  - Hormak harrizkoak , egurrezkoak edo zarpiatu eta margotutakoak izango dira.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Fatxaden diseinua emango zaion erabileraren arabera izango da eta Udalak eskumena izango du desegokiak iruditzen zaizkion proposamenak baztertzeko.
- Behin behineko izaera izango dute eta behin jarduera desagertuko balitz, eraikina eraitsi egin beharko da eta ingurunea jatorrizko egoeran utzi beharko da.
- Ustiatzearen sortuko diren hondakinak biltegiatzeko eta deuseztatze sistemak proposamen xehea aurkeztuko da. Gutxienez ondorengo baldintzak errespetatuko dira:
  - Simaurtegiak eta minda hobiak, abereen instalazioetatik gertu jarriko dira eta edonola ere eraikuntza nagusia dagoen partzela berean.
- Ukuilu baten eraikuntza baimendu ahal izateko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da edo egokitasun hau lortzeko beharrezko diren lanak egin beharko dira.
- 141/2004 DEKRETUA, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustiatzearen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen bete beharko da.
- Udalaren baimenaz gain Foru Aldundiaren baimena beharko da hauek eraiki ahal izateko.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

### **158. art.- Biltegiak**


Nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako eraikinak dira. Makinaria, elikagaiak etab. gordetzeko erabiliko dira. Beren azalera, altuera eta gainerako ezaugarriak ustiapenaren arabera justifikatu beharko dira. Eraikuntza baldintzak:

- Soilik biltegi gisa erabiliko dira eta debekaturik egongo da aisialdiko nahiz bizileku erabilera ematea.
- Udalaren baimenaz gain Foru Aldundiaren baimena beharko da hauek eraiki ahal izateko.
- Gehienezko eraikigarritasuna 0,2 m<sup>3</sup>/m<sup>2</sup>-koa izango da eta partzela hartzaileak gutxienez, 5.000 m<sup>2</sup> izango ditu.
- Plantan gehienez 100 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du. Ataria balu, azalera honen barnean egon beharko du.
- Solairu bakarrekoa izango da eta gehienez 5 m-ko altuera izango du teilatu hegal horizontaleraino terrenoaren edozein tokitan neurtuta.
- Estalkia bi isuritakoa izango da eta gehienez %35-eko malda izango du. Isuri bakarreko estalkia egin ahal izango da, beti ere paisaiarekiko erasana gutxitzeko bada.
- Orokorrean ondorengo distantziak errespetatuko dira:

. Partzelaren mugara: 10 m

. Landabideen ertzetatik: 10 m

. Errepideetatik: Foru Araudiaren arabera


 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

. Ur ibilguetatik: Erkidegoko Arauaren arabera.


- Eraikuntza materialak ondorengoak izango dira:
  - Estalkia teila zeramikoak edo antzeko itxura ematen duen sistemaz egingo da.
  - Hormak harrizkoak , egurrezkoak edo zarpiatu eta margotutakoak izango dira.
- Fatxaden diseinua emango zaion erabileraren arabera izango da eta Udalak eskumena izango du desegokiak iruditzen zaizkion proposamenak baztertzeko.
- Behin behineko izaera izango dute eta behin erabilera desagertuko balitz, eraikina kendu egin beharko da, partzelaren jatorrizko ezaugarriak berreskuratuz.
- Biltegi baten eraikuntza baimendu ahal izateko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da edo egokitasun hau lortzeko beharrezko diren lanak egin beharko dira.

### **159. art.- Ustiapeneko produktuak merkaturatzeko eraikinak**

Ustiapeneko produktuak merkaturatzeko behar den lehen prestaketa (garbitzea, lotetan edo kaxatan sartzea, etiketatzea eta abar) eta lehen transformazioa (kontserbak, dultzeak eta abar...) egiteko (oinarrizko osagaia %100 ustiaketa bertatik datorrenean) posible izango da ondoren zehazten diren baldintzetan eraikin osagarriak ipintzea:

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


- Soilik ustiapeneko produktuen merkaturatzeko prestaketa eta transformaziorako erabiliko dira eta debekaturik egongo da aisialdiko nahiz bizileku erabilera ematea.
- Udalaren baimenaz gain Foru Aldundiaren baimena beharko da hauek eraiki ahal izateko.
- Gehienezko eraikigarritasuna 0,2 m<sup>3</sup>/m<sup>2</sup>-koa izango da eta partzela hartzaileak gutxienez, 5.000 m<sup>2</sup> izango ditu.
- Plantan gehienez 200 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du. Ataria balu, azalera honen barnean egon beharko du.
- Solairu bakarrekota izango da eta gehienez 5 m-ko altuera izango du teilatu hegal horizontaleraino terrenoaren edozein tokitan neurtuta.
- Estalkia bi isuritakoa izango da eta gehienez %35-eko malda izango du. Isuri bakarreko estalkia egin ahal izango da, beti ere paisaiarekiko erasana gutxitzeko bada.
- Orokorrean ondorengo distantziak errespetatuko dira:
  - . Partzelaren mugara: 10 m
  - . Landabideen ertzetatik: 10 m
  - . Errepideetatik: Foru Araudiaren arabera
  - . Ur ibilguetatik: Erkidegoko Arauaren arabera.
- Eraikuntza materialak ondorengoak izango dira:

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>


- Estalkia teila zeramikoak edo antzeko itxura ematen duen sistemaz egingo da.
- Hormak harrizkoak , egurrezkoak edo zarpiatu eta margotutakoak izango dira.
- Fatxaden diseinua emango zaion erabileraren arabera izango da eta Udalak eskumena izango du desegokiak iruditzen zaizkion proposamenak baztertzeko.
- Behin behineko izaera izango dute eta behin erabilera desagertuko balitz, eraikina kendu egin beharko da.
- Eraikuntza baimendu ahal izateko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da edo egokitasun hau lortzeko beharrezko diren lanak egin beharko dira.

### **160. art.- Lehendik dauden baserriak**

Baserria, eraikina eta bere lurrez osatutako unitate produktibo banatu ezina da. Lizartzan, egun, ondorengo Baserriak daude:

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU</b> <b>ESPEZIFIKOAK</b>

IPINTZA ALDEA	LEZIALDE	Uberetagoiena ASURALDEA
Andresoro	Zelarain	
Ipintza	Marikinea	Goikoetxetikia
Ipintza Zelai	Etxeaundi A	Goikoetxeaundia
	Etxeaundi B	Asura
IRUNTZI ALDEA	Arizpea	Asuragoiena
	Zuloagartetxea	Etxeberri
Iruntzizubi A	Sagastiñeberri	Olatza
Iruntzizubi B	Etkezarraga	Asuraetxeberri
	Leziñea	
	Istiletabekoa	BASAITZALDEA
LARTZALDE	Istiletagoikoa	
	Goltzur	Agiñene Bekoa
Zakar	Muñoa	Agiñene Goikoa
Agirrebarrena		Joangi
Agirregoena	NARBAITZUALDEA	Basaitzenea
Agerre Erdikoa	Errotagain	Intxaurrondo
Beorregieta	Ligatza	Basaitzgoiena
Iraolabekoa		Agiñeneartetxe
Juanmigelaundi	ZUMITZALDEA	
Lardi		EGUZKIBAR
Berazaenea A	Zumitzaga A	Eguzkibar
Berazaenea B	Zumitzaga B	
Juanmigeltxiki		ERREKALDEA
Urkola	HERRIGUNEA	Errekalde
	Baratza	Errekalde Azpikoa


 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Lehendik dauden baserrietan eta gutxieneko ustiapenei loturiko etxebizitza eraikinetan ondorengo obrak burutu ahal izango dira: eraberritzeak, handitzeak eta baserrian etxebizitza berri baten egokitzapena.

a.- Birgaitzeak:

- Obrek baserriaren berezko ondare arkitektonikoa eta historikoa errespetatu beharko dute. Ez dira baimenduko berezko arkitektura elementu baliotsuak eraldatuko dituzten obrak( ateburuak, armarriak, harlanduzko fatxadak...).
- Balizko arkeologia gune gisa kalifikatuta dauden eraikinetan, obra nagusiak baimendu ahal izateko, arkeologi azterlana egin beharko da
- Baserrien birgaitzeak bizi baldintzen hobekuntza eta erosotasun mailaren handitzea ekarriko dute.
- Birgaitzeak, inguruko txabola, aterpe, eranskin eta abarren desagertzea ekarriko du.
- Obrek fatxadaren elementuetan eragiten badute, landa lurreko eraikinetako berezko materialak erabiliko dira:
  - Estalkia teila zeramikoakoa izango da.
  - Fatxadan, harria, egurra, margotutako zarpiatua eta zati txikietan adreilua erabili ahal izango dira.
  - Arotzeria egurrezkoa edo itxura berekoa izango da.
- Baserri hauen birgaitzea baimentzeko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da eta baita ur eta elektrizitate hornidurak ere edo beharrezko lanak egingo dira hauek egokitzeko.




 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

### b.- Handitzeak

Baserrien handipena baimentzeko, handipenaren beharra justifikatzen duen ustiapena badela erakutsi beharko da. Era berean, ostalaritza erabilerak ezartzeko badira, handitzeak baimendu ahal izango dira.


- Handipena bakarra izango da baserri bakoitzeko eta erreferentziazat, Arauak egiten direneko urteko egoera hartuko da.
- Gehienez, jatorrizko baserriaren %20-ko bolumeneko handipena egin ahal izango da. Edozein kasutan, baserri oro 200 m<sup>2</sup>ko okupazioa izan arte zabaldu ahal izango da.
- Handipenak ez du baserriaren batz besteko altuera gaindituko.
- Handipenak, inguruko txabola, aterpe, eranskin eta abarren desagertzea ekarriko du.
- Handipenak, baserriaren jatorrizko egitura mantenduko du eta fatxadaren antolakuntza, jatorrizkoarekin bat etorriko da( materialak, konposaketa elementuak...)
- Ondorengo materialak erabiliko dira:
  - Estalkia teila zeramikoakoa izango da.
  - Fatxadan, harria, egurra, margotutako zarpiatua eta zati txikietan adreilua erabili ahal izango dira.
  - Arotzeria egurrezkoa edo itxura berekoa izango da.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Baserri hauen handitzea baimentzeko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da eta baita ur eta elektrizitate hornidurak ere edo beharrezko lanak egingo dira hauek egokitzeko.
- Udalaren baimenaz gain Foru Aldundiaren baimena beharko da hauek eraiki ahal izateko.

#### c.- Baserrian etxebizitza berri bat egokitzea

- Famili bakarrekoak diren baserriak Famili bikoitzekoak egin daitezen etxebizitza berrien egokitzapenak baimenduko dira, beti ere, ondorengo baldintzetan:
  - Baserriak gehienez famili bikoitzekoak izango dira.
  - Zatiketa honek ez du lurren banaketa ekarriko eta baserriak Arau hauetan ezarritako partzela minimoa mantendu beharko du.
  - Eraikinaren zatiketak lurren banaketa ekarri ahal izango du, soilik gutxieneko partzelaren azalera bikoitza duten baserrietan.
  - Egokitzapena, bizi baldintza eta erosotasun mailaren hobekuntza kontutan hartuta egingo da.
  - Etxebizitza berrien egokitzapenetan, birgaitze eta zabaltze obretan bete beharreko baldintzak errespetatuko dira.
- Etxebizitza hauen egokitzapena baimentzeko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da eta baita ur eta elektrizitate hornidurak ere edo beharrezko lanak egingo dira hauek egokitzeko.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

d.- Aurri egoeran dauden eraikinak berriro eraikitzea

Aurri egoeran dauden ondorengo eraikuntza hauek berriro eraiki ahal izango dira etxebizitza gisa erabiltzeko, betiere, eraikuntza honi lotutako partzelek, gutxienez, Arau hauetan ezartzen den azalera minimoa badute:

Aitakorena, Lezigoiena, Iraola Goikoa

Aurrez dagoen eraikinak dituen baliozko elementu arkitektonikoak mantendu beharko dira.


Baserri hauen berritzea baimentzeko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da eta baita ur eta elektrizitate hornidurak ere edo beharrezko lanak egingo dira hauek egokitzeko.

e.- Egungo eraikinak ordezkatzeta

Egungo eraikinak ordezkatu ahal izango dira, eraikinak balore arkitektonikorik ez badu, hau da, ez badago Arau hauetako Katalogoan jasota, edo soilik elementu arkitektoniko puntual bategatik baldin badago jasota, kasu honetan ordezkapenak elementu arkitektoniko hau mantendu beharko du.

Eraikina berreraikiz gero partzelan dauden txabolak eta eranskinak bota beharko dira.

Osasun, ingurumen edo paisaia arrazoiengatik eraikinak lekuz aldatzea baimenduko da. Mantendu beharreko arkitektura elementu baliozkoak baditu, hauen kokapen aldaketa posiblea den baloratuko da.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Eraikuntza baldintzak eraikin berriei dagozkienak izango dira.

Ordezkatu nahi den eraikuntza bota egin beharko da.


Baseri hauen ordezkatzea baimentzeko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da eta baita ur eta elektrizitate hornidurak ere edo beharrezko lanak egingo dira hauek egokitzeko.

### **161. art.- Eraikin berriak**

Nekazaritza ustiapen bati lotuta etxebizitza berriak eraiki ahal izango dira, beti ere, gutxienez Arau hauetan zehazten den finka minimoari lotuta eta ustiapen honek eskudun organismoak eskatutako dimentsio ekonomiko minimoa gainditzen badu. Honetarako, eskatzaileak baimena eskatu beharko dio aurretiaz lurralde historikoko nekazaritza-sailari, gutxienez honako hauek egiaztatuta:


- a) Ustiakuntzak gutxienezko eskakizunak betetzen dituela modu autonomoan ekonomikoki bideragarria izateko.
- b) Eskatzailea gizarte-segurantzian dagokion araubide berezian kidetua dagoela gutxienez eskaera egin baino urtebete lehenagotik.
- c) Aurkeztutako azkeneko errenta-aitorpenean, eskatzaileak diru-sarrera arrunten %50 baino gehiago nekazaritzako edo abelazkuntzako ustiategitik lortu dituela.

Ustiapen bakoitzak gehienez bi etxebizitza justifika ditzake. Eraikin berriak famili bakarrekoak edo gehienez famili bikoitzekoak izango da. Famili bikoitzekoa izateko, ustiapena bi famili unitate mantentzeko adinakoa dela erakutsi beharko da, (bi ustiapen minimo justifikatu beharko dira).


 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Baserri berriak ondorengo distantziak errespetatuko ditu:

- Partzelaren mugetatik 10,00 m baztertuko da
  - Landabideen ertzetatik: 10 m
  - Errepideetatik: Foru Araudiaren arabera
  - Ur ibilguetatik: Erkidegoko Arauaren arabera.
- Gutxienez 100 m<sup>2</sup>-ko okupazioa izango du famili bakarrekoa bada. Famili bikoitzekotan 150 m<sup>2</sup>-ko okupazioa izango du gutxienez.
  - Gehienezko okupazioa 200 m<sup>2</sup>-koa izango da famili bakarreko baserrietan eta 300 m<sup>2</sup>-koa famili bikoitzekotan.
  - Eraikuntza berria jasoko duen partzelak, gutxienez, 5.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izan beharko du, lurzoru hiritar ezineko ondorengo kategoriatakoen batetan egon beharko duelarik (Arau hauetan ezarritako baldintzetan):
    - 1.1.Eremua: Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zona eta Landazabala
    - Eremu mistoa 1.1. Eremua eta 2.2. Eremua: Ubideak Babesteko Lurzoru Hiritar Ezina.
  - Gehienezko profila: PB+P1+PBC edo SS+ PB+ PBC
  - Teilatu hegaleko gehienezko altuera 7,00 m-koa izango da terrenoaren edozein lekutan neurtuta.
  - Teilatua bi isuritakoa izango da eta gehienez %35-eko malda izango du. Isuri bakarreko estalkia egin ahal izango da, beti ere paisaiarekiko erasana gutxitzeko bada.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Eraikinak sotoa izan dezake eta azalera honek ez du aprobetxamendurik hartuko. Aldapa dela eta, sotoa, erdi sotoa balitz, lau aldetatik 3 gutxienez lur azpian egon beharko dute. Kasu honetan profila SS+PB+ PBC izango da.
- Teilatu hegalkak gehienez 1,20 m irtengo dira.
- Ondorengo materialak erabiliko dira:
  - Estalkia teila zeramikozkoa izango da.
  - Fatxadan, harria, egurra, margotutako zarpiatua eta zati txikietan adreilua erabili ahal izango dira.
  - Arotzeria egurrezkoa edo itxura berekoa izango da.
- Instalakuntzak, banatze gunetik lurperatuta eramango dira eraikineraino.
- Hobi septikoa jarri beharko da, olio banatzailea duena. Honen kokapena eta ezaugarriak zehaztu beharko dira eraikinaren exekuzio egitasmoan.
- Eraikin berria egiterakoan lur mugimenduak egin behar badira, ondorengo baldintzak beteko dira:
  - Otsailaren 27ko 3/1998 Legea, ingurumena babestekoa eta azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua izan beharko dira kontuan.
  - Egin beharreko betelanaren drainatzea egokia izatea,
  - kaltetuta gerta daitezkeen elementu naturalak edo eraikitakoak behar bezala babestea.
  - Ingurunean ahalik eta hobekien integratu beharko dira eta eraldatutako eremuko azalera berreskuratu beharko da.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- Eraikin berria baimentzeko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da eta baita ur eta elektrizitate hornidurak ere edo beharrezko lanak egingo dira hauek egokitzeko.


Eraikuntza baimentzen duen lizentziak bizitegi erabilera nekazaritza edo abeltzaintza ustiakuntza ekonomikoari edo landa-garapenaren berezko beste erabilera batzuei lotuta mantentzeko betebeharra ezarriko du, gutxienez 25 urteko epean eta modu jarraitu eta etengabe.

Arau hauek ezartzen duten finka minimoaz gain (3 Ha), Etxebizitzaren beharra justifikatzen duen ustiapenari loturiko lurak baimendutako eraikuntzari lotuta egongo dira hirigintzaren zein erregistroaren aldetik.

Baldintza hauek betetzen ez badira, bizitegirako erabilera hirigintzaren aldetik ez da legitimoa izango eta eraikina antolamenduz kanpo geratuko da. Gorabehera bat eta bestea jabetza-erregistroan idatziko dira, legez ezarrita dagoen eran eta jabearen kontura.

**162. art.- Nekazaritza ustiapen bati lotu gabe Lurzoru hiritar ezinean aurkitzen diren etxebizitza eraikinak**

Mekolaberri, Errekaldeberri, Lardiberri, Toki-Alai, Opote, Ostatuberri, Zumitzagaberri, Ezkurrene, Goikoerrota, Arrokiñena eta udal baimenarekin eraikiak izan diren gainerako etxebizitza eraikinak gaur egun dituzten eraikitako bolumena eta etxebizitza kopuru baldintzetan kontsolidatzen dira. Ez dira kontsolidatzen udal baimenik gabe eginiko eranskinak.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

### **163. art.- Negutegiak**

Baldintza hauek bete beharko dira:

- Solairu bakarrekoak izango dira eta gehienez 4,00 m-ko altuera izango dute.
- Partzelaren mugekiko 5 m baztertuko dira eta eraikinetatik 20 m.
- Negutegien okupazio maximoa, partzela hartzailearen %40-koa izango da, beti ere 1000 m<sup>2</sup> baino azalera txikiagoa hartuko dutelarik.

Azalera handiagoa behar bada, Udalak paisaiaren aldetik izango duen eragina arintzeko neurriak aplikatzeko eskatu ahal izango du. Neurri horiek dagokion proiektuan zehaztu beharko dira.

Negutegien baimena bi urtetik behin berritu beharko da eta jarduera amaitzerakoan elementu guztiak desmuntatu eta ingurunea berreskuratu beharko da.


## **4.- KAPITULUA.- LURZORUAREN ERREGULAZIORAKO ARAUDI OROKORRA**

### **164. art.- Gutxienezko partzela eta lurraren banaketa**

Gutxienezko partzelaren azalera 3Ha-koa izango da. Lehendik dauden baserriek gutxienez azalera hori mantendu beharko dute eta gainerako lurak banatu ahal izango dira, beti ere, Arau hauetan ezarritako gutxieneko partzela osatzeko bada:

- Bai beste lursail bati lotuta gutxieneko partzela osatzen bada
- Bai beste lursail bati lotu gabe, baldin eta banatzen den zatiak, berak, partzela minimoa osatzen badu.



 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Administrazio publikoak ondorengoetarako lur zati bat behar duenean, erabilera konkretu horrek eskatzen duen adinako zatiketa egin ahal izango da nahiz eta partzela minimoak ez mantendu:

- Obra publikoei lotutako beharretarako
- Lurzoru hiritar ezinean ezarri beharra duten eta erabilgarritasun publikoa duten edo interes sozialerako diren erabilerak kokatzeko.

### **165. art.- Urbanizazio eta inguruaren tratamendurako baldintzak**


Obra egitasmoetan egin beharreko lur mugimenduen beharra, izaera eta kopurua zehaztea eskatu da, soberakinaren kudeaketa ere zehaztu beharko delarik.

Lur geruza begetala obran zehar metatuko da behin obra amaitutakoan berriz ere zabaltzeko erabili ahal izateko. Lur geruza begetalaren metaketa eragin kaltegarria sor dezaketen beste materialetatik aldentuta mantenduko da.

Eraldatutako azaleretan, obrak amaitu ondoren, jatorrizko erliebea berreskuratzeko ahalegina egingo da. Erliebe aldaketak sor dezakeen eragina gutxitzeko neurriak hartuko dira.

Obretako sarbide gisa, lehendik dauden bideen erabilera bultzatuko da, bide berrien erakuntza saihestuz. Beharrezkoak balira, hauek ahal den neurrian ingurumenera egokituko dira, gehiegizko aldapak eta abar sortu gabe.

Ez da baimenduko lurra eusteko hormigoizko hormarik. Soilik 2 m-ko

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

altura arteko harrizko hormak baimendu ahal izango dira. Altura handiagoko tartearak eutsi behar badira elkarrekiko atzeraturik ipinitako hormak ipini beharko dira jarraian. Ahal den neurrian tratamendu begetalak erabiliko dira.

Lursailen itxiturak soilik animalien ustiaketak hala eskatzen duenean egin ahal izango dira. Itxitura hauek, ahal dela, harrizkoak izango dira. Alanbrezko, zurezko nahiz bertako landaretzazko hesiak ere egin ahal izango dira.

- Itxituren gehieneko altuera 1,20 m-koa izango da.
- Lursailak bide publikoarekin muga egiten duen tokitik 1,00 m-ra jarriko dira itxitura guztiak.
- Euste- hormen akaberak egiteko ageriko harrizko hormak erabiliko dira. Ageriko hormigoia ere baimenduko da, kalitateko akabera duenean.


Eraikuntza berriko obrak paisaian izan dezaketen eragina gutxitzeko, udalak zuhaitz autoktonoen landaketa eska dezake, kasu bakoitzaren arabera erabakiko du zuhaitz mota eta landatu beharrekoen kopurua.

Eraikuntza berriak, paisaian ahalik eta integratuen eta lur mugimendu txikienak eragiteko moduan eraikiko dira. Edozein kasutan inguruko landaretza berreskuratu beharko da.

Hondakinak eta obra hondakinak hondakindegia kontrolatuetara botako dira.

Obrako eremuz kanpo lur mugimenduetatik ateratako soberakinen metaketa saihestuko da.

Uren kutsadura saihestuko da, era guztietako isuriak debekatuta daudelarik.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Isuriak izan ditzaketen makinaren azpialdeak iragazkaiztuko dira, isuriak ubideetara iragazi ez daitezten.

Hormigoi-makina nahiz igeltsuko siloak garbitzen diren eremuak mugatu eta babestuko dira, ur horiek ubideetara isuri ez daitezten.

Ibaian lan egin behar denean( zubiak burutzerakoan, bideratze hormak burutzerakoan...) arrainen pasara babestua bermatuko duen Ubidea eratu beharko da.

Garbitu eta moztu beharreko landaretza eremua mugatu eta seinaleztatuko da, eta era berean moztu behar diren zuhaitzak markatuko dira. Kontu berezia izango da aurreikusitako eraikuntza garapenerako kentzea beharrezkoa ez den landaretza mantendu eta zaintzeko.


Lurraren azken 1,00 m-ko geruza ez da trinkatuko era honetara landaretza berriaren jaiotza bultzatuz. Lurrazaleko azken 0,30 m-ko geruza lur begetalekoa izango da.

Eragina jasaten duten lursailen paisaia berreskuratuko da, bereziki zainduko direlarik obrak burutzerakoan azalean geratzen diren lursail gorrituak.

Baso guneak nahiz ubideak berreskuratzeko bertakoak diren zuhaitz eta landaretza motak erabiliko dira.

Inausketak eta lur mozketak burutzerakoan, azal begetalak ezarriko dira higagarritasuna saihesteko. Landareak aukeratzeko bertako klima eta izaera kontutan hartuko da.

Betelanak burutzen direnean zuhaitz eta zuhaixkak landatuko dira, aldapen egonkortasuna lortzeko eta paisaiarekiko erasana gutxitzeko.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Obren eremua hesituko da, animalia desberdinak bertan sartu ez daitezen eta landatzen diren landare berriak babesteko.

Obrak burutzerakoan interes arkeologikoa izan dezakeen aztarnarik topatuko balitz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailari jakinaraziko zaio lehenbailehen.

Obretan sortzen diren hondakinak 10/1998ko Legearen arabera, 1994/10 Dekretuaren arabera eta 2001/1481 Errege dekretuaren arabera kudeatuko dira.

Olioak nahiz alkaterna hondakin toxiko bezala kudeatuko dira, goian aipatutako araudiak aintzat hartuta.

Hondakinak behar bezala banatuta eta sailkatuta jasoko dira.


Paisaia balore, ingurumen balore edo lurzoru hiritar ezineko bestelako baloreen defentsarako gomendagarri den kasuan Udalak Plan Berezi baten onarpena eskatu dezake.

### **166. art.- Zuhaitz landaketak**

Baso landaketak egiteko baimen eskaera, tekniko gaitu batek edo erakunde ofizial batek eginiko Baso Ustiakuntza Plan batekin batera aurkeztu beharko da.

Baso landaketetan, ondorengo tartekak utzi beharko dira mugetara:

- titular desberdineko baso landaketen artean: 2 metro
- baratza, zelai edo fruta arboletara :
  - 6 m Eukaliptus zuhaitzetatik
  - 4 m hostozabalen gainerako landaketetatik

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

- 3 m pinudietatik

- Baserri eta etxebizitza eraikinen inguruan 50 m-ko tartea utzi beharko da bertako hostozabalak ez diren espezieen baso landaketak egiteko.

Ez dira baso landaketatzat hartuko bide eta ubide ertzetan lerrokaturik ageri diren zuhaitz ilara sinpleak, ez eta apaingarri modura landatzen diren zuhaitz bakanak ere.

### **167. art.- Zuhaitz ateratzeak**

Zuhaitzak ateratzeko baimena lortzeko bide publikoetan sor daitezkeen kalteez erantzungo duen bermea ipini beharko da.


### **168. art.- Ostalaritza erabilera**

Lehendik dauden baserrietan eta Arau hauek kontsolidatzen dituzten etxebizitza eraikinetan ostalaritza erabilera baimenduko da.

Erabilera hauek ezartzeko handipenak baimendu ahal izango dira jadanik definitu diren baserri-handipenei dagozkien baldintza berberetan.

Lotarako gela bakoitzeko eta jantoki erabilerako 10 m<sup>2</sup> bakoitzeko aparkaleku bat egokitu behako da.

Ostalaritza erabilera baimendu ahal izateko bertara iristen den bidearen egokitasuna justifikatu beharko da eta baita ur eta elektrizitate hornidurak ere edo beharrezko lanak egingo dira hauek egokitzeko.

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

### **169. art.- Erabilgarritasun publiko edo interes sozialeko erabilerak**

Udalak Plan Berezi bat onartzea exijitu dezake lurzoru hiritar ezinean ipini beharreko erabilgarritasun publiko edo interes sozialeko eraikin edo instalazioak ezartzeko.

### **170. art.- Ibilgailuentzako mendi-bideak**

Debekatuta dago lurzoru hiritar ezinean mendi bideak irekitzea, horiek egiteko arrazoia behar bezala justifikatzen ez bada eta landa inguruko ustiapen bati lotuta ez badago edo baimendutako eraikin batetarako ez bada.


Irteerarik gabeko mendi bideetan, bira emateko nahiko leku egongo da 1.000 m bakoitzeko eta nahitaez, bidearen amaieran.

### **171. art.- Paisaiarekiko eragina**

Paisaiarekiko erasana sor dezaketen egitasmoetan, berreskuratze azterlanak eskatuko dira obratako baimena eman aurretik.

Sailkatutako edo babestutako elementuengan eragina izan dezaketen egitasmoetan paisaiarekiko eragina aztertuko duen azterlana eskatuko da.

### **172. art.- Aireko instalazio elektrikoak paisaian integratzea**

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Lurzoru hiritar ezinean tentsio altuko eta tarteko tentsioko linea elektrikoak eusten dituzten zutabeak ipintzea baimenduko da, beti ere, lurzoru hiritarraren gainetik pasatzen ez diren heinean.

Linea hauek ezingo dira gailurretan ipini modu jarraitu batetan eta lehenatasunez mendi magalen erdialdetik eraman beharko dira, paisaiarekiko erasana gutxiena den moduan.

Aireko instalazio elektrikoaren eta aireko telefono lineen elementuak konfiguratzeko eta horien bidea zehazteko kondizioak jarri ahal izango ditu Udalak, horiek paisaian eta nekazaritzako eta basoko ustiapenetan izan ditzaketen ondorioak gutxitzeko.


### **173. art.- Lurzorua egokitzea**

Lurzoru hiritar ezinean edozein motatako lurzorua egokitzea Autonomia Erkidegoko ingurumen babeserako ardura duen erakundeak baimendu beharko du, Udalaren baimena eskuratu aurretik, Hondakin Geldoak eta Geldotutakoak kudeatzeari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuko edo indarrean dagoen gainerako araudiko kondizioen eta dekretu hori garatzen duten xedapenen arabera.

Debekaturik daude zabortegeak.

Soilik Udal baimena duten eraikuntza proiektuetan jasotako lurzoru egokitzeak baimenduko dira.

### **174. art.- Publizitatea**

 LIZARTZAKO UDALA	<b>LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA</b> <b>TESTU BATERATUA</b>	
	<b>2007KO OTSAILA</b>	<b>LURZORU HIRITAR EZINEKO HIRIGINTZA ARAU ESPEZIFIKOAK</b>

Kartelak, euskarriak eta oro har kanpoko publizitate panelak jartzea debekatuta dago. Ezin da publizitaterik egin elementu naturalak pintatuta horien kokapena edozein dela ere.

### **175. art.- Hondakinak**

Erabat debekaturik dago zaborrak edo hondakinak botatzea, legalki horretarako ezarritako zabortegietan izan ezik.

### **176. art.- Igerileku eta pilotalekuen eraikuntza**

Soilik erabilera eta jabari publikoko pilotalekuen eraikuntza baimenduko da

Igerilekuen eraikuntzan bereziki zaindu beharko da hauen integrazioa paisaian. Udalak igerileku bat instalatzeko baimena ukatu dezake honek ingurunean sortzen duen erasana gehiegizkoa dela kontsideratzen badu.

### **177. art.- Haize-errota eta eguzki xaflen instalazioa**

Soilik norbere kontsumorako diren haize-errotak ipini ahalko dira.

Eguzki xaflak lurraren gainean instalatzea lehenetsiko da. Plaka hauek eraikinen teilatuetan ipini behar badira, ezingo dute okupatu 10 m<sup>2</sup> baino azalera handiagorik.